



## MAIATZAREN 17A - LGTBIFOBIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

### ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

1990eko maiatzaren 17tik, Osasunaren Munduko Erankundeak (OME) homosexualitatea gaixotasunen zerrendatik kendu zuenetik, LGBTBI fobiaren eguna ospatzen da, eta balio esanguratsua du lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualentzat, gaur egun LGBTBI kolektiboak oraindik ere aurre egin behar dien eskubideen aldeko eta diskriminazioaren aurkako jardueren ardatz katalizatzaile gisa.

COVID-19aren ondorioz bizi dugun egoera eragin handia izaten ari da kolektibo hauetan ere; beraz, sexu- eta genero-aniztasunaren aurkako gorrotoak eragindako erasoak salatzen jarraitu behar dugu. Eraso horiek ez dira gure inguruan bakarrik gertatzen. Lesbiana, gay eta bisexualen lege-babesean aurrerapenak egin diren arren, Nazio Batuen Erakundeko (NBE) 69 estatu kidek sexu bereko helduen artean adostutako sexu-ekintzak zigortzen jarraitzen dute, ILGAK (Lesbiana, Gay, Bisexual, Trans eta Intersexen Nazioarteko Elkarte) adierazten duen bezala. Gainera, Human Rights Watchen arabera, pandemiak desberdintasun arrakalak eragin ditu, kolektibo batzuk besteak baino gehiago ahulduz.

Honen baitan, Debako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak adierazi nahi dugu orientazio sexuala eta genero identitatean oinarritutako diskriminaziorik ez dugula onartzen, ez eta indarkeriarik ere. Lesbiana, gay, transexual, bisexual, transgenero eta intersexualek bere adierazpen afektibo-sexualak askatasun osoz bizitzeko eskubidea baitute.

Euskal gizarte inklusiboa eta askotarikoa aldarrikatzen dugu, aniztasuna aztergai dugun esparrutik ulertuta, baina baita bere osotasunean ere. Indarrak batzea dagokigu, gizarte justuagoa, errespetuzkoagoa eta integratzaileagoa eraikitzeko. Berdintasunerako eskubidearen eta sexu-orientazio eta generoagatiko diskriminaziorik ezaren alde lan egiten jarraituko dugu, aniztasunaren bizipen askea sustatzeko helburuarekin.

Deba-Itziarren, 2021eko maiatzaren 17an.